

INKLUSIO PLANA

EASO POLITEKNIKOA

LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
1.1. Inklusioari buruzko lege-esparrua Lanbide Heziketan	2
1.2. Inklusioa, Easo Politeknikoaren Hezkuntza Proiektuaren parte	3
2. KONTZEPTUA ETA DEFINIZIOA	4
3. INKLUSIORAKO FUNTSEZKO IDEIAK LH-n	7
3.1. LHko heziketa-zikloetan sartu aurreko hezkuntza-orientazioaren garrantzia	7
3.2. Doikuntzak programazioetan eta ebaluazioan	8
3.3. Metodologia aktiboak eta kolaboratiboak	8
3.4. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala	11
3.5. Inklusiorako erakunde laguntzaileak	11
3.6. Hizkuntza inklusiboaren erabilera	12
3.7. Inklusioa ikastetxeko beste eremu batzuetan	13
4. HEZKUNTZA-ERANTZUNA IKASLE-TIPOLOGIA GUZTIEI	14
4.1. Kontsiderazio orokor batzuk	14
4.2. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasle-taldeak	15
4.2.1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak	15
4.2.1.1. Entzumen-desgaitasuna	15
4.2.1.2. Ikusmen-desgaitasuna	16
4.2.1.3. Mugitzeko desgaitasuna	17
4.2.1.4. Adimen-desgaitasuna	19
4.2.1.5. Autismoaren Espektroko Nahasmendua	20
4.2.1.6. Jokabidearen nahasmendu larriak	22
4.2.2. Hizkuntzaren Garapenaren eta Komunikazioaren Nahasmenduak dituzten ikasleak	24
4.2.3. Arreta- eta/edo Ikaskuntza-nahasmenduak dituzten ikasleak	25
4.2.3.1. Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua (ADHN)	25
4.2.3.2. Ikasteko zailtasunak. Dislexia	27
4.2.4. Ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larria duten ikasleak	29
4.2.5. Kalteberatasun sozioedukatiboko egoeran dauden ikasleak	31
4.2.6. Adimen-gaitasun handiko ikasleak	32
4.2.7. Hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak	33
4.2.8. "Baldintza Pertsonal Bereziak edo Eskola-historia" direla-eta HLPEak dituzten ikasleak	34

1. SARRERA

Easo Politeknikoak beste urrats bat eman nahi du, bere Inklusio Planaren bidez, egiten duen irakaskuntza lanaren zehaztapenak dokumentatzeko. Era berean, hezkuntza-komunitateari, oro har, eta irakasle-taldeari, bereziki, jarduera-ildo batzuk aurkeztu nahi dizkie, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak (HLPE) dituzten ikasleei behar duten arreta emateko eta ikastetxean jarduteko moduak bateratzeko.

Gizarte-premien arretarekin batera, egin beharreko egokitzapenei dagokienez irakaslearen ikuspegitik kontuan hartu beharreko zenbait funtsezko ideia definitzen dira, betiere lege-eskakizunetan ezarritakoa betez.

Ikasle horiei arreta emateko oinarritzko jarraibide batzuk ere ematen ditu, tipologiaren arabera. Azalpen horiek labur-labur aurkezten dira dokumentu honetan, baliagarriagoak izan daitezten. Hala ere, gehiago sakondu nahi izanez gero, COPOEk¹ egindako dokumentua eskura daiteke. Dokumentu hori, aldi berean, Fundación 1º de Mayok² aurretik sortutako dokumentutik abiatu da, biak erabili baitira hau idazteko oinarri gisa.

Bestalde, EHUren Inklusio Planean³ islatzen den bezala, kalteberatasun-egoeran dauden ikasleei ematen zaien arreta, ikasgeletan esku hartzeaz eta ikasteko prozesuaz arduratzeaz gain, ikastetxeko bizitzako beste atal batzuetan ere islatu beharko da.

Horrekin guztiarekin, 78/2024 Dekretuak, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoak⁴, planteatzen duen bezala, **paradigma aldaketa bat** bultzatu nahi da, hezkuntza-sistemako estamentu guztiak inplikaturiko dituen, eta, ikastetxeetan, batez ere irakasleak.

1.1. Inklusioari buruzko lege-esparrua Lanbide Heziketan

Lanbide Heziketako (LH) 6. Euskal Planak⁵, prestakuntza inklusiboari dagokion esku-hartze eremuan, ikasleen aniztasunari arreta emateko printzipioaren arabera, bi jarduera-ildo planteatzen ditu LHn inklusioa sustatzeko: bata, sistemari berari zuzendua, eta, bestea, LHko ikastetxeei. Horretarako, beste neurri batzuen artean, ikasketa-diseinu unibertsalak gidatzen dituzten printzipioak bultzatu eta garatuko dituen curriculum-proiektu bat egiteko beharra azpimarratzen du.

¹ COPOE - Guía para la inclusión educativa del alumnado con NEAE en FP

² Fundación 1º de mayo - Pautas para la inclusión educativa del alumnado con NEAE en FP

³ EHUren IV. Inklusio Plana

⁴ 78/2024 Dekretua aniztasunari erantzutekoa EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan

⁵ Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana

Bestalde, LOMLOE⁶, LOE aldatzen duen lege organikoak, adierazten du LHko ikasketetan arreta berezia jarri behar zaiela hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei, eta irakaskuntza horien printzipioetako bat hezkuntza-inklusioa dela. Horretarako, ikasle horien curriculumerako sarbidea errazteko beharrezkoak diren antolamendu- eta metodologia-alternatibak eta aniztasunari arreta emateko neurriak ezarri beharko dira. Gainera, hezkuntza-administrazioek LHko irakaskuntzetan desgaitasunen bat duten ikasleentzat plazak erreserbatzea aurreikusten du.

Gainera, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko Lege Organikoak⁷ bere printzipio orokorretan jasotzen duen bezala, hezkuntza-ekintza pertsonaren zentraltasuna kontuan hartuta garatu behar da. Hau da, gaitasunak ahalik eta gehien garatuz, parte-hartze aktiboa sustatuz, pertsonen arteko trebetasunak garatuz eta jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, sexua, desgaitasuna, gizarte- edo lan-kalteberatasuna edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio oro gainditzen lagunduz.

Era berean, Lanbide Heziketari buruzko Lege Organikoak horrek aitortzen du pertsona guztiek ikasketa hauetara sartzeko, parte hartzeko eta ikasteko duten eskubidea, bereizketarik egin gabe, haien ezaugarriak eta beharrak edozein direla ere, eta arreta berezia jarri bazterkeria-arriskua duten kolektiboek. Eta, era berean, irakaslanerako orientabide batzuk antolatzen ditu, heziketa-ziklo bakoitzerako ezarritako gaitasunak garatzeko aplikatu beharreko metodologiari eta gaitasun horiek lortzen direla bermatzeko ezarritako ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzeari dagokienez.

Illo horretan, hezkuntza sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko 78/2024 Dekretuak, aniztasunarekiko arreta nola ulertu behar den definitzeaz gain, HLPEei arreta emateko orduan kontuan hartu beharreko jarraibide batzuk ezartzen ditu, bai eta funtzio hori gidatu behar duten jardura printzipioak ere.

Azkenik, aurreko guztiaren osagarri gisa, kontuan hartu dira Inklusiorako V. Euskal Planak⁸ jasotzen dituen orientabideak eta gomendioak, hezkuntza-eremutik, eta, bereziki, LHtik, herritar-eskubideetarako sarbidea sustatzeko. Horien artean, prestakuntza duala sustatzea edo kalteberatasun handieneko egoeran dauden gazteei enplegurako trantsizioa bultzatzea nabarmentzen dira.

1.2. Inklusioa, Easo Politeknikoaren Hezkuntza Proiektuaren parte

Easo Politeknikoa bere komunitatearekin eta murgilduta dagoen gizartearekin konprometitutako ikastetxea da. Konpromiso horren froga da zuen hezkuntza-proiektuaren leloa: *pertsonak heziz, profesionalak sortuz*. Konpromiso horrek egitura eta antolaketa sistematikoki berrikustera eramaten du.

⁶ LOMLOE, 39,7 art. - 75,4 art.

⁷ 3/2022 Lege Organikoa, LHren antolamenduari eta integrazioari buruzkoa, 3, 4, 13, 26, 70 art.

⁸ Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026 (Eusko Jaurlaritza, 2023)

Ilido horretan, Easo Politeknikoak, 2019-2020 ikasturtean Ikastetxearen Curriculum Proiektuari⁹ (ICP) egindako berrikuspenean, ikasleengan prestakuntza integrala sustatzea aurreikusi zuen, inklusibotasuna eta aniztasunaren tratamendua bezalako balioen hedapena bultzatuz. Horretarako, ikasle bakoitzak zabaltasun, intentsitate eta iraupen maila desberdineko laguntza eska dezaketen premia bakarrak dituela eta, gainera, hezkuntza-inklusioa pertsona guztientzako eskubide-kontua dela aitortzea aurreikusten da. Beraz, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuak¹⁰ (GIH) bultzatzen ere lagundu nahi da, eta haien artean bereziki laugarrena, zeinek kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea proposatzen duen, bai eta pertsona guztientzako ikaskuntza ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta eraginkorrak eskaintzea ere.

Aurreko puntuan azaldutako guztia kontuan hartuta, hezkuntza eta zerbitzu misioarekiko fideltasunean, Easo Politeknikoak Inklusio Plana izeneko dokumentu hau egin du, ICPren zati osagarri gisa.

2. KONTZEPTUA ETA DEFINIZIOA

Aniztasunari erantzutea deritzo hezkuntza-arloko politika, kultura eta jardunbideen multzoari (planak, metodologiak, estrategiak, neurriak, laguntzak eta abar), betiere multzo hori ikasleen garapena erraztera bideratuta ez ezik, haien gaitasunetara, ikasteko estilora, interesetara, egoera pertsonaletara, sozialetara, osasun-baldintzetara eta baldintza ekonomiko, kultural eta funtzionaletara egokituta ere baldin badago.

Gainera, inklusioaren kontzeptua ez dugu soilik hezkuntzaren esparruan ulertu behar, baita gizartean ere, ikasteko, lankidetzan aritzeko eta hazkunde pertsonalerako espazioak sortuz. Banakako desberdintasunak ulertu, onartu eta errespetatzetik abiatuta, ekintzak eta esku-hartzeak egin ahal izango ditugu, helburu errealistak eta gauzagarriak lortzeko, gizabanako edo kolektibo jakin baten premia espezifikoari erantzun ahal izateko, haren bizi-garapenaren une jakin batean eta testuinguru espezifiko batean.

Ekintza inklusiboek eraldaketa, aukera berriak, ikuspuntu berriak, erronka berriak eta garatutako ekintzen funtzionaltasuna bilatzea esan nahi dute, pertsonen garapen pertsonala zein soziala ahalbidetuko duten helburuak lortzeko gutxieneko autonomiarekin.

Kontuan izan behar da gizartea etengabe aldatzen ari dela, eta horrekin batera hezkuntza ere bai, eta aldaketa horietara egokitu ahal izateko, pertsonen tresna eta gaitasun baliagarriak eman behar zaizkie, bertan moldatu ahal izateko. Testuinguru horretan, Easo Politeknikoko irakasleek, ikasgeletako aniztasuna ezagutu eta harekiko sentiberatasuna baitute, ikasturtero ikasle taldeetan errealtate heterogeneoa aurkitzen dute, honako hauei dagokienez: nortasunak, ikasteko ohiturak, jatorria, kultura, maila akademikoa,

⁹ ICP-PCC - euskaraz

¹⁰ GIH-ODS 17+1 Easo Politeknikoa 2019/20-2023/26

komunikazio-hizkuntza, adina, interesak, familia eta gizarte errealitateak, ikasteko zailtasunen diagnostikoak, defizit sentesorialak, motorrak, etab.

Zailtasun askori egin behar zaie aurre beren irakasgaiaren ezagutzak emateko orduan, ikasleek bereganatu ahal izan ditzaten eta, horrela, aurrera egin ahal izan dezaten eta beharrezkoak diren gaitasunak eskuratu ahal izan ditzaten etorkizunean kalitatezko lana garatu ahal izan dezaten, enpresan prestakuntza egin ondoren eta aurrerago lan munduan sartzean.

Hezkuntza inklusiboak aniztasunaren adierazpen guztiak ditu bere ikasgeletan¹¹:

- Kultura-aniztasuna. Pertsona guztiak kultura espezifikoetakoak dira, eta kulturalki desberdinak izan daitezke.
- Gaitasun-aniztasuna. Edonork izan ditzake gaitasun desberdinak. Ikastetxe inklusibo orok aberastu egin behar ditu bere proposamenak, estrategiak eta testuinguruak, ikasleek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izan ditzaten. Hezkuntza-sistemaren erronka ahalik eta bikaintasun-maila handiena lortzea da, ekitatea ahalik eta gutxien murriztuta.
- Sexu-joeren aniztasuna. Pertsonen orientazio desberdinak dituzte beren sexualitatea sentitzeko eta gauzatzeko orduan.
- Genero-aniztasuna. Generoa ikasle guztien oraina eta etorkizuna baldintza ditzakeen konstruktua soziala da.
- Baliabide sozio-ekonomikoen aniztasuna. Gizarte-maila eta maila ekonomiko ahuletatik datozen ikasleak, hasieraz, hezkuntza-sisteman sartzeko desabantaila handiko egoeran egon ohi dira.

Herritarrengan agertzen den aniztasun hori zaintzea erronka handia da hezkuntza-sistementzat. Horri aurre egitea guztion zeregina da: irakasleek, aldaketa hori eraikitzeko ardura profesionala baitute, familiekin, gizarte-ingurunearekin eta hezkuntza-administrazioekin batera. Ikastetxe inklusibo batean, irakasleek, ikasleek, familiek eta/edo legezko ordezkariak eta gizarte-eragileek parte hartzen dute, eta guztien arteko komunitate-zentzua garatzen dute. Horren ondorioz, kide izateko gizarte-espazioak eraikitzen dituzte, ikasle mota guztiak ikastetxearen parte senti daitezkeen. Ikastetxe horrek benetako komunitatea izan behar du, esperientzia abegitsua, aberatsa eta askotarikoa eskaintzen duen testuinguru antolatua, non pertsona bakoitza ezagutua, aitortua eta tratatua den, eta eskola-jardueran zuzenean parte hartzen duen.

Beraz, Easo Politeknikoak bere gain hartzen ditu hezkuntza-arloan eskumena duen sailak aniztasunari erantzuteko modua zuzendu behar duten jarduketa-printzipioak¹². Hauek dira:

- Pertsonaren duintasunarekiko errespetuaren printzipioa. Pertsona oro, pertsona izate hutsagatik, duina da eta berez balio du. Duintasunak irizpide erabakigarria izan behar du ikasle guztien eskubide diren inklusiorako politikak, kulturak eta hezkuntza-praktikak diseinatzeko eta garatzeko.
- Gizarteratze-printzipioa. Guztion onerako eta gizarte-kohesiorako balio partekatuak sustatzen ditu, desgaitasuna duten pertsona guztiek bizitzan bete-betean parte

¹¹ Aniztasuna eskola inklusiboan

¹² 78/2024 Dekretua, 3. art.

hartzeko eta gainerakoekiko berdintasunean bizi ahal izateko aukerak eta baliabideak izan ditzaten.

- Prebentzioaren eta komunitate-lanaren printzipioa. Prestakuntza-ibilbideetan HLPEak izateko arriskuan dauden ikasleen garapen pertsonalean gerta daitezkeen aldaketak goiz detektatzeko eta identifikatzeko jarduketa orokorrak ezarriko dira, identifikazio-prozesuak bermatuko dituzten jarduketekin. Hori guztia arreta integratu, diziplina anitzeko eta diziplinarteko baten esparruan. Era berean, lan komunitarioak, osasun- eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzan, zeregin prebentiboa eta proaktiboa du ikasteko oztopoak identifikatzeko eta hezkuntzako esku-hartzea aberasteko eta gizarteratzea sustatzeko.
- Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala. Irisgarritasun unibertsala bermatu behar da. Era berean, ikastetxearen curriculum-proiektuak, bere hezkuntza-proiektuan sartuta dagoenak, ikaskuntzarako diseinu unibertsalak erabiltzea zainduko du, ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea errazteko bitarteko gisa.
- Parte-hartzearen eta erantzunkidetasunaren printzipioa. Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona, hezkuntza-eragile, instituzio eta erakunde guztien inplikazioa eta erantzunkidetasuna sustatzen ditu. Easo Politeknikoak sarean lan egingo du, ikasleen familiekin, hezkuntza arloan eskumena duen sailaren laguntza sistemarekin eta, hala dagokionean, gizarte zerbitzuekin eta osasun profesionalekin. Parte-hartzeak, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan inplikazio aktiboa izateaz gain, ikasleen esperientzien kalitatea, interakzioak eta ongizatea ere barne hartzen ditu, eta horiei aukera ematen die gizartean herritar balioetsi, aktibo eta arduratsu gisa parte hartzeko.
- Ekitatearen printzipioa. Ikastetxean gure ikasleei ematen diegun erantzuna ikaslearen beharretara egokitu beharko da.
- Bikaintasunaren printzipioa. Ikastetxearen helburua ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea da. Aniztasunari erantzuteko neurriek ingurune normalizatu eta inklusibo batean behar dituzten ikasleen hezkuntza-premiei erantzun beharko diete.
- Haurren eta nerabearen interes nagusiaren printzipioa. Lege-printzipio horren arabera jokatu beharko da, ikasle bakoitzaren garapena eta bere eskubideen babesa hobekien bermatuko duten baldintzak babestean oinarrituta.
- Autonomiaren printzipioa. Autonomia pertsonalak berekin dakar pertsona bakoitzak bere lehentasunen arabera bizitzeko moduari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea, bai eta eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak garatzeko aukera ere, guztien duintasuna enpatiaz errespetatuz. Hezkuntza inklusiboa definitzean eta gauzatzean, argi izan behar da hezten direnen gaitasun eta autonomia gero eta handiagoa lortu behar duela, pertsona bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuta.
- Kulturartekotasunaren printzipioa. Hezkuntza inklusiboan, kultura-aniztasunari eman beharreko arretak kulturartekotasun-irizpideak izan behar ditu ardatz, irizpide horiek kulturen arteko errespetu hutsa gainditzeko dutela.
- Hezkidetzaren edo berdintasuneko hezkuntzaren printzipioa. Hezkuntza inklusiboak kontuan hartuko du genero-ikuspegia, aukera-berdintasun erreala sustatzeko eta sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik diskriminazio-mota oro ezabatzeko.

Laburbilduz, hezkuntza inklusiboa ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza ekitatiboa lortzen laguntzeko zereginarekiko jarrera eta konpromisoa da.

3. INKLUSIORAKO FUNTSEZKO IDEIAK LH-n

Badira hezitzaileek eguneroko jardunean kontuan hartu beharko dituzten alderdi batzuk, ikasle guztien inklusioa ahalbidetzeko.

Ikasle bakoitzarentzako orientazio egokitik abiatuta, baliteke programazioetan eta eguneroko jardueran doikuntza batzuk egin behar izatea, ikasle bakoitzak egiten ari den heziketa-zikloaren curriculumak eskatzen dituen ikaskuntzaren emaitzak lortuko dituela bermatuz.

Horretarako, ezinbestekoa izango da metodologia aktiboak eta kolaboratiboak erabiltzea, ikasgela bakoitzean dauden ikasle guztiek beharrezko gaitasunak garatzeko eta prestakuntza integrala bermatzeko, ikastetxean egindakoa enpresetan garatuko diren prestakuntza-aldiekin osatuta. Bestalde, kontuan izan behar da zentrotik kanpoko baliabideak ere badaudela beharrezkoak diren kasuetarako.

3.1. LHko heziketa-zikloetan sartu aurreko hezkuntza-orientazioaren garrantzia

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legeak¹³, LHren aurreko ikasketak arautzen dituenak, adierazten duen bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailak izaera propedeutikoa eta orientatzailea du LHko ikasketetarako, besteak beste; beraz, ikasturte honetan arreta berezia eskaintzen zaio ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioari.

Ilido horri jarraituz, HLPEk dituzten ikasleekin egiten den orientazio-prozesuak bermatu behar du ikasleek, heziketa-ziklo batean matrikulatu aurretik, ziklo horren ezaugarriak ezagutzen dituztela, **haien gaitasunen eta zikloko gaitasunen arteko desoreka saihesteko**. Alde horretatik, funtsezkoa da heziketa-ziklo batean matrikulatu aurreko etapa amaitzean egiten den orientazio akademiko profesionala.

Era berean, HLPEk dituen ikaslearen arretarako eta jarraipenerako plan pertsonalizatua egin behar da, LHn irauten eta aurrera egiten laguntzeko, bai eta familiarekin (batez ere adingabeak izanez gero) eta kanpoko laguntza-zerbitzuekin (gizarte-erakundeak, gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etab.) koordinatzeko jarraibideak ezarri ere, ikasle bakoitzari erantzun globala eta testuinguruan kokatutakoa bermatzeko. Tutoreak, irakasle-taldearekin eta orientatzaileekin batera, proposatutako jardueren garapenaren

¹³ [17/2023 LEGEA, 14.1 artikulua](#).

etengabeko jarraipena egingo du, eta aplikatutako neurrien eraginkortasuna baloratuko du, baita neurri horien, esleitutako baliabideen eta beste edozein alderdi interesgarriren aldaketa eta/edo egokitzapena ere.

3.2. Doikuntzak programazioetan eta ebaluazioan

Heziketa-zikloak profesionalak dira, eta, beraz, **heziketa-ziklo bat egiten duten ikasle orok matrikulatuta dagoen heziketa-zikloari lotutako gaitasunak eskuratu behar ditu.** Horregatik, egiten diren laguntza eta egokitzapen guztiek **curriculumera iristea erraztu** behar dute, antolamendu-neurriak, giza baliabideak eta baliabide materialak aplikatuz, ikasleen behar espezifikoak hezkuntza-erantzuna eman ahal izateko.

Pertsonen prestakuntza-garapen profesionala errazteko, haien prestakuntza integrala sustatuz eta haien nortasuna dimentsio guztietan garatzen lagunduz, eta hala Lanbide Heziketari buruzko Lege Organikoan nola aniztasunari erantzuteko 78/2024 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta, ebaluazioan bateragarri egin beharko dira hezkuntza- edo prestakuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten pertsonen egokitzapen metodologikoaren eta baliabideen beharrak eta egiten ari den heziketa-zikloari dagokion oinarritzko curriculum-diseinuan ezarritako ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzea.

Illo horretan, Easo Politeknikoak prestakuntza ziklo bakoitzean lortu beharreko gaitasunak eta hori gertatzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren lorpen adierazleak ditu ardatz. Horretarako, ikasle bakoitzak bere heziketa-zikloan jarraitu beharreko ibilbidea ezagutu behar du, bere lan- eta ikaskuntza-erritmoa ibilbide horretara egokitzeko aukera izan behar du eta horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartu ahal izan behar ditu. Estrategia horren oinarrian ikuspegi inklusiboa ere badago, non ikasle bakoitza bere prestakuntza-prozesuaren kudeatzaile nagusi bihurtzen den.

Bestalde, LH Antolatze eta Integratze 3/2022 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz, aurreikusten da etorkizunean Easo Politeknikoak A, B, C Graduak eta D Graduak modalitate espezifikoan eskaini ahal izango dituela, baldin eta aniztasunari eta inklusioari arreta emateko neurriak eta neurri antolatzaile eta metodologikoak nahikoak ez badira HLPEak dituzten pertsonentzat.

3.3. Metodologia aktiboak eta kolaboratiboak

Metodologia aktiboak eta kolaboratiboak aniztasunean eta inklusioan oinarritutako ikaskuntza ebaluatzean datza. Metodologia horren ardatza ikaskuntza ikuspegi inklusibo batetik ebaluatzea da, ikasgelan aniztasuna sustatuz eta ikasleen ikasteko gaitasunak eta estiloak ezagutuz. Ikaskuntza pertsonalizatzea sustatzen du. Elkarlaneko ikaskuntza sustatzen du, ikasleek elkarren artean ikasteko talde heterogeneoak sortuz. Alderdi hori guztiz bat dator inklusio-planarekin, ikaskuntza-giroa sortzen baitu, hezkuntza-komunitate osoaren arteko lankidetzak, errespetua eta elkarrekiko laguntza balioesten dituena.

Metodologia aktiboetan eta kolaboratiboetan oinarritutako hezkuntza-eredua esperientzia pilotu gisa garatu zen 2013/2014 ikasturtean Euskadiko LHko bost ikastetxetan, publikoetan zein itunpekoetan. Easo Politeknikoan metodologia horietan murgildutako zikloak ematen dira, eta ikasleei aukera ematen zaie ziklo bakoitzean zehaztutako gaitasunak modu esanguratsuagoan garatu eta barneratu ahal izateko, horretarako, elkarlaneko ikaskuntzan oinarrituta, eta egoera problematiko bat planteatuta, aldi berean erronka bihur dadin.

Prozesu osoa antolatzen da ziklo bakoitzeko gaitasun tekniko eta espezifikoetan eta une honetan estrategikoak diren zeharkako gaitasunetan emaitza bat lortu arte, hala nola ikaskuntzako autonomian, talde lanean... Arazo-egoerak, kasu guztietan, taldetan eratutako ikasgelan planteatzen dira. Lan-prozesuak aukera eman behar die ikasleei egoera erronka gisa bizitzeko eta, hortik abiatuta, irtenbiderik onenak proposatzeko behar den ezagutza sortzeko. Horrela, ikasleak banaka eta taldean lan egiten hasiko dira, emaitza bat sortuz eta interpretatuz.

Talde-lanak eta ikasgela-klasea taldeka eratzeak zenbait baldintza eskatzen dituzte, EAEko LHko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariaren jarraibideetan¹⁴ azaltzen den bezala, modulu arteko lankidetzak-ikaskuntzako metodologiaren proiektuen garapenari buruz. Besteak beste, ikasleek erronkaren edo proiektuaren garapenean parte hartzeko betebeharra ezartzen da, dagokion erronkan edo proiektuan sartutako lanbide-moduluetako batek gaindituta eta/edo baliozkotuta izan ala ez.

Ebaluaziorako behaketa eta feedbacka erabiltzen dira, besteak beste, ikasleen gaitasunen garapena ikusteko eta egiaztatzeko, bai eta haien ikaskuntza hobetzeko ere. Era berean, autoebaluazioko eta koebaluazioko sistemak planteatzen dira, eta irakasleek baliozkotu egiten dituzte une oro. Hau da, etengabeko berrelikadura emango duten eta ikasleei ikaskuntza prozesuan zehar hobetzen lagunduko dieten prestakuntza ebaluazioak.

Era berean, komeni da ikasleen beharretara egokitzen diren hainbat ebaluazio-modu ahalbidetzea, hala nola ahozko ebaluazioak, ebaluazio idatziak edo praktikoak, eta ikasleei beren ikaskuntza hainbat modutan erakusteko aukera ematea.

Ikasgela-talde bakoitzean parte hartzen duen irakasle-taldean egin beharreko lanaren lidergoa kide-kopuru txikiagoz osatutako irakasle-talde bati badagokio ere, irakasle-talde osoaren eskumena da ikasleei planteatutako erronkak behar bezala garatzen direla zaintzea.

Metodologia berri horiek ezartzeko, ikasgelak, ekipamenduak, altzariak eta espazio espezifikoak behar dira, malguak, irekiak, interkonektatuak eta lan aktiboa eta kolaboratiboa ahalbidetuko duten ingurumen-egoerak erraztuko dituztenak. Honakoak sustatuz:

- Errealitate mistoko espazioak, ikasleei ingurune birtualetan murgiltzeko aukera emanez, mundu errealeko lan inguruneen simulazioetan parte hartuz, esperientziaren bidez ikaskuntza erraztuz, bestela ezagutu ezingo lituzketen lekuak edo testuinguruak sustatuz eta arazoak konpontzen saiatuz eta talde-lanean jardunez, ingurune simulatuetan arazo konplexuak konponduz, hiru dimentsioko

¹⁴ [Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendariaren jarraibideak](#)

espazio batean kontzeptu abstraktuak bistartzeko aukera emanez, ikasle guztiek edukien barneratzea hobetu dezakete, inklusioa sustatuz.

- Informazioa bilatzeko eta trukatzeko eta talde-lanerako informazio-espazio egokiak; berrikusteko, aztertzeko eta erabakiak hartzeko espazio analitikoak; ideiak marrazteko, modelatzeko eta sortzeko sormen-espazioak; sormen-esparruan asmatutakoa prototipatzeko eraikuntza-espazioak.
- Prototipoa eta azken produktua sortuko diren gune exekutiboak. Espazio ludikoek ere beren garrantzia izango dute aurreko egoeratik deskonektatu ahal izateko eta ikasleen osasun emozional ona sustatzeko.
- Curriculumerako irisgarriak diren materialak eta baliabideak ematea ikasle guztiei, baita desgaitasunen bat dutenei ere. Horrek teknologia asistiboa, formatu alternatiboetako materialak (braillea edo audioa, adibidez) eta espazio fisiko irisgarriak izan ditzake.
- Baliabide gehigarriak eskainiz, hala nola tutoretzak, curriculumera iristeko laguntzak behar dituzten ikasleei laguntzeko orientazioa, formakuntza-ziklo bakoitzean eskatzen diren gaitasunak garatu ahal izan ditzaten.

Aniztasunarekiko errespetuaren eta balioen kultura sustatzen da, non ikasle guztiak seguru sentitzen diren adierazteko eta parte hartzeko.

Inklusioa hezkuntzaren eta garapen sozialaren funtsezko zutabea da. Easo Politeknikoan metodologia aktiboak eta kolaboratiboak integratzen ditugu prozesu honetan. Metodologia horiei eutsiz, ziurtatzen dugu ikasleek hainbat esperientzia eta trebetasun partekatuko dituztela, hezkuntza komunitate inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz. Metodologia horiek ikasle guztiak ahalduztzen laguntzen dute, pertsona bakoitza baloratuago senti dadin, bakoitzaren egoerak eta ikasteko erritmoak errespetatuz, eta ikasle bakoitza **curriculumera iritsi ahal izango den ikasketa prozesuaren parte izanik eta ziklo bakoitzeko gaitasunak lortuz**.

Lankidetzaren mota horretan, ikasleen arteko lankidetzaren eta enpatia sustatzen dira. Ikasgelan inklusioa zainduta, hainbat lan inguruneetan lan egiteko eta elkarrengaitzeko tresnak eskaintzen zaizkie.

Beren ikaskuntzaren protagonista direnez, ikasleak motibatuago eta konprometituago sentitzen dira.

Easo Politeknikoan metodologia aktiboak eta kolaboratiboak lantzen ditugu formakuntza-ziklo guztietan, eta, horrela, gure ikasleak lan ingurune askotariko eta inklusiboan lan egiteko prest daudela ziurtatzen dugu.

Ebaluazio-sistema ikaskuntza-metodologietara egokituko da, eta **ikaskuntzaren emaitzak edo, hala badagokio, lorpen-adierazleak egiaztatzean oinarritu beharko da**, ikaskuntza esanguratsua sustatuz, trebetasun kritikoak garatuz eta lankidetzaren, errespetuaren eta aniztasunaren kultura sustatuz.

Easo Politeknikoaren webgunean, Ethazi¹⁵ metodologia aktibo eta kolaboratiboei buruzko zehaztapenak azaltzen dira. Eta, bestalde, ICPren hedapen gisa, heziketa-ziklo bakoitzari

¹⁵ [ETHAZI - Metodologia kolaboratiboak](#)

lotutako lanbide-profilen zehaztapenetan¹⁶, garatu beharreko gaitasunak eta horietako bakoitzari dagozkion lorpen-adierazleen zerrenda aurkezten dira.

3.4. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala

Metodologia aktibo eta kolaboratiboen ikuspegiarekin eta aniztasunari erantzuteko 78/2024 Dekretuak adierazten dituen jarduketa-printzipioekin bat etorriz, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)¹⁷, Universal Design for Learning (UDL), hezkuntza inklusiborako irakaskuntza-eredu teoriko-praktikoa da, ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren berezitasuna onartzen duena eta irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuen eta inguruneen irisgarritasuna sustatzen duena, curriculum malgu baten bidez, ikasleen aniztasunaren beharretara eta ikaskuntza-erritmoetara egokituta.

IDUren esparruari jarraiki sortzen den curriculum hasieratik diseinatu da, ikasle guztien beharrei erantzutea ahalbidetuko duten planteamendu malguekin. Ildo horretan, eta LHn garrantzi handiagoa izanik, curriculum-planteamenduak ikasle guztiengan pentsatuz egiteko ahalegina egin behar da. Helburua da ondorengo egokitzapenak saihestea eta ikaskuntzaren diseinu unibertsal baterantz aurrera egitea, ikasteko oztopoak minimizatuz eta hainbat gaitasun, motibazio, historia pertsonal... dituzten ikasleei erantzuna eman diezaieketen elementu alternatiboak txertatuz.

Ikasleei informazioa hainbat modutan eskainiz, ulertu ahal izan dezaten: bideoak, infografiak, audioak, iturri motak, grafikoak... Horrela, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-estilora egokitzen den formatua aukeratu ahal izango du.

Ikasleei beren ikaskuntza hainbat formaturen, ahozko aurkezpenen, proba praktikoen eta abarren bidez frogatzen uztea, betiere **ikaskuntzaren emaitzak lortzea murritzten ez bada**.

Ikasgelan IDU sustatzeak baliabide malguak eta curriculumera sartzeko baliabideak diseinatzea eskatzen du, ikasle guztientzako ingurune inklusiboa sustatuz.

3.5. Inklusiorako erakunde laguntzaileak

Hezkuntzaren esparruan, ikasleen inguruko zeregina ez da soilik ikastetxera mugatzen. Lanik handiena bertan egingo bada ere, ezinbestekoa da inguruko erakundeekin lankidetzan aritzea helburuak betetzeko. Eta hori edozein kasutan gertatzen bada, eta are gehiago HLPEak dituzten pertsonen dagokienean.

Horregatik, ahal den neurrian familien laguntza izateaz gain, ezinbestekoa izango da kasu edo behar bakoitzari dagokion laguntza emateaz arduratzen diren erakundeen aholkularitza, orientazioa, prestakuntza eta lankidetzaren biltzea.

¹⁶ IPC-PCC zehaztapenak mintegika

¹⁷ educadua.es

Erakunde horiekin garrantzitsua izango da **ikuspegi hezkidetzalea** izatea, bakoitzak bere ekarpena bere ikuspuntutik egin ahal izateko. Hau da, erakundeen arteko sinergia bilatzea komeni da, norberak bere esparrutik eskaini ahal izan dezan bertatik egin daitekeena, une oro kontuan hartuta artatutako ikasleen garapen integrala eta ahalduntzea dela helburua.

Ilido horretan, hainbat motatako erakundeek osatuko dute ikastetxea bere lanean:

- Hezkuntza-administrazioen eta beste administrazio publiko batzuen mendekoak: gizarte-zerbitzuak, Badabidebat, Hezkuntza-ikuskaritza, Berritzegunea, IBT-CRI...
- Behar espezifikoak dituzten ikasleei eta haien familiei laguntzeko elkarteak: ONCE, Aransgi, Agifes, Acabe, Gautena, Atzegi, Haurralde...
- Ikasleei enpresako prestakuntza ematen dieten erakunde edo enpresa guztiak.

Irakasle-taldeak, ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren laguntzarekin eta zuzendaritza-taldearen oniritziarekin, beharrezko harremanak izango ditu erakunde laguntzaile horiekin, HLPEak dituzten ikasleentzako esku-hartzeak antolatu ahal izateko behar diren bideak irekitzeko.

Gainera, pertsona horiek enpresetan prestakuntzarako eskubidea bermatuta izan dezaten zainduko du, behar dituzten egokitzapenekin, enpresaren esleipenean diskriminaziorik jasan gabe.

3.6. Hizkuntza inklusiboaren erabilera

Aurreko ataletan azaldutakoa ahozko zein idatzizko komunikazioan islatu beharko da, hizkuntza inklusiboa erabiliz. Bereziki zaindu beharko litzateke adierazpenek inolako diskriminazio- edo etiketatze-izaerarik ez izatea, eta, ikastetxeak bere gain hartutako balioak zainduta, ikuspegi sexista, arrazista, etnozentrista edo androzentrista saihestea.

Helburua da, alde batetik, pertsonen balio bera ematea gizartearen osatzen duen aniztasuna ikusarazteko, eta, bestetik, modu negatiboan aplikatzen diren, errealitatearen pertzepzioa desitxuratzen duten eta injustizia soziala sustatzen duten aurreiritziak eta sinesmenak saihestea.

Ilido horretan, lagungarri izango da Easo Politeknikoak hizkuntza inklusiboa¹⁸ erabiltzeko prestatutako dokumentazioa, non hizkuntza egokia erabiltzeko iradokizunak eskaintzen diren, bai euskararen kasuan, bai gaztelaniaren kasuan.

3.7. Inklusioa ikastetxeko beste eremu batzuetan

Inklusio Planaren helburu nagusia da HLPEak dituzten ikasleei ikaskuntza prozesuetan laguntzea. Hau da, egiten ari diren heziketa-zikloak eskatzen dituen gaitasunak eskuratzeko

¹⁸ [Hizkuntza inklusiboa](#)

garatu behar duten curriculumak eskuratzeko behar diren laguntzak edo baliabideak ahalbidetzea.

Hala ere, EHUko Inklusio Planean islatzen den bezala, kalteberatasun-egoeran dauden ikasleei ematen zaien arreta ikasgeletan esku hartzeaz eta ikasteko prozesuaz arduratzeaz harago doa, eta ikastetxeko bizitzako beste atal batzuetan islatu beharko da:

- **Informazio egokia eskaintzea:** ikasleek ikastetxean sartu aurretik jaso duten orientazioa ikastetxean bertan eskain dakiokenarekin osatuko da. Horretan, garrantzitsua izango da idazkaritzako eta orientazio-zerbitzuetako profesionalen informazio egokia eman ahal izatea, pertsona bakoitzaren beharretara eta egoeretara ahalik eta gehien egokituko dena.
Mintegietako irakasleen laguntza erabilgarria izan daiteke informazio zehatzagoa behar izanez gero. Gainera, ate irekien jardunaldiek aukera emango dute prestakuntza ziklo bakoitzaren xehetasunak ezagutzeko, eta, beraz, komeniko litzateke horiek ere ikuspegi inklusibotik garatzea.
Garrantzitsua izango da, halaber, ikasleak sartzeko eta matrikulatzeko administrazio-izapideetan eta beharrezko laguntza-eskaerak behar bezala betetzean gidatu eta aholkatu ahal izatea.
Ikasleri eskaintzen zaion informazioak aukera eman behar dio bere erabakia har dezan eta ahalduzko-prozesuan beste urrats bat eman dezan.
- **Kalteberatasun egoeran dauden pertsonen ikasketak egiten laguntzea:** ikastetxeak zaurgarritasun egoeran dauden ikasleei arreta emateko aukerak aztertuko ditu, kasu bakoitzean ikasketak hasi edo jarraitu ahal izan ditzaten. Arreta berezia eskainiko zaie desgaitasuna duten pertsonen, errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen, arazo ekonomikoak dituztenen, espetxean daudenen, genero-identitatearen arazoak dituztenen, genero-indarkeriaren biktimen umezurtzei, etab.
- **Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte har dezaten sustatzea, ikuspegi inklusibo batetik:** ikasgeletan eta tailerretan egiten diren ohiko jarduerak gain, ikastetxean osagarritzat jotzen diren eta eskola-bizitzaren zati handi bat diren beste jarduerak asko egiten dira. Horietan guztietan ikasle guztien parte hartzeko aukera-berdintasuna sustatuko da.
Gainera, Easo Politeknikoak, bere Plan Estrategikoan, konpromisoa du Garapen Iraunkorrerako 17+1 Helburuak garatzeko, eta bere jarduerak osagarriak zeharkako ikuspegi integratzaile batetik antolatuko ditu, bereziki 18. helburua zainduz, hizkuntza eta kultura aniztasuna sustatzea bilatzen duena.
- **Ikastetxean ikasketak amaitu ondoren erabakiak hartzen laguntzea:** edozein ikasleri eskaintzen zaion bezala, kalteberatasun-egoeran dauden ikasleei aholkularitza eskainiko zaie, hala nahi izanez gero, bai ikasketekin jarraitu ahal izateko, bai Urratsbat¹⁹ programaren bidez enpresa bat sortzeko. Gainera, enplegarritasuna errazteko dauden aukera sozialak baliatzeko informazio espezifikoak emango zaie.

¹⁹ Urratsbat

4. HEZKUNTZA-ERANTZUNA GUZTIEI

IKASLE-TIPOLOGIA

Hezkuntza-premia espezifikoen artean askotariko egoerak aurki ditzakegu, hala nola premia bereziak dituzten ikasleek beren eremu zabaletik adierazten dituztenak, edo beste premia sozial edo pertsonal batzuen ondorioz agertzen direnak.

Jarraian deskribatuko diren tipologiaren aurretik, ikasleekin oro har kontuan hartu beharreko alderdiak ere aipatzen dira, pertsona oro besteekiko desberdina baita, eta gehiago edo gutxiago nabarmentzen den aniztasun horri erantzuteko beharra etengabe kontuan hartu behar baita hezkuntza-ekintzan.

4.1. Kontsiderazio orokor batzuk

Gordon Allportek (1937) adierazi zuen bezala, jakina da pertsona ororen nortasuna besteena ez bezalakoa dela, eta nortasun hori hainbat ezaugarriaren konbinazioak osatzen duela. Hau da, pertsona bakoitzak nortasun ezaugarri konbinazio bakarra du, besteengandik bereizten dituen, baina beste pertsona batzuekin ezaugarri komun batzuk ere partekatzen dituen. Beraz, esan dezakegu pertsona bakoitzak ezaugarri berdinez osatutako nortasuna duela, baina proportzio desberdinetakoak. Gainera, antolaketa hori dinamikoa da bakoitzarentzat, eta bere bizipenen eta garapen pertsonalaren arabera eboluzionatu dezake.

Pertsona bakoitzaren nortasunaren sakonean eta bere garapenean, historia pertsonalean bizitakoaz gain, sena, sentiberatasuna, bizitasuna eta adimena egongo dira. Horiek guztiak bakarrak eta desberdinak dira pertsona bakoitzarentzat.

Ilido horretan, azken hamarkadetan, aniztasun intelektuala bereziki nabarmendu da psiko-hezkuntzaren munduan. Horrela, Howard Gardnerrek (1983) adimenak zortzi kategoria edo ezaugarri nagusi desberdinetan sailkatu zituen (musikala – linguistikoa – logiko-matematikoa – gorputz adimena – bisuala – espaziala – intrapertsonala – interpertsonala – naturalista), eta geroago Daniel Golemanek (1996) Adimen emozionala liburuan pertsonaren barne emozioak kudeatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Pertsona bakoitzaren adimena horien guztien konbinazioak osatzen du, eta ezaugarri horietakoren bat nagusituko da. Beraz, kontuan izan behar da pertsona bakoitzak errealitate bera bere ñabardurekin hauteman dezakeela.

Hori horrela izanik, azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela ikasleentzat orientazio ona izatea, pertsona bakoitzak dituen gaitasunak askotarikoak baitira, eta hezkuntza-eskaintza hain zabala denez, garrantzitsua izango da haren ezaugarri eta asmo sakonetara ondoen egokitzen den heziketa-ziklora bideratzea, aurrerantzean mailarik onena eman dezan eta bere prestakuntza- eta lanbide-ibilbideari zentzu osoa aurkitu diezaion.

Era berean, komenigarria izango da hezitzaileak kontuan hartzea ikasle guztiek errealitate bera hautemateko, barneratzeko eta kudeatzeko modu desberdinak izan ditzaketela. Horregatik, landu beharreko gaiak aurkezterakoan, interesgarria izango da ahalik eta aukera gehien aurreikustea, adibidez, ahozko azalpenak ikus-entzunezkoekin, mapa mentalekin, baliabide digitalekin, birtualekin, errealitate mistoarekin eta abarrekin osatzea. Era berean, proposatuko diren zereginak eta erronkak diseinatzerakoan, lagungarria izan daiteke aniztasunari erantzuteko, askotariko gaitasunak garatzea ahalbidetuko duten aukerak planteatuz egitea, hala nola ikerketa, sormena, egituraketa edo komunikazioa.

4.2. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasle-taldeak

Easo Politeknikoak ikastetxean dagoen aniztasun mota orori (kulturalak, sexu orientaziokoak, generokoak, etab.) erantzuteko helburua ezartzen badu ere, jarraian, HLPEak dituzten ikasleei dagokien erantzuna ematen lagun dezaketen jarraibide batzuk laburbiltzen dira. LOMLOEk bederatzi taldetan²⁰ biltzen ditu hauek:

- Hezkuntza-premia bereziak.
- Heltze-atzerapena.
- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendua.
- Arreta- edo ikaskuntza-nahasmendua.
- Ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larria.
- Zaurgarritasun sozioedukatiboko egoera.
- Gaitasun handiak.
- Berandu eskolaratzea.
- Baldintza pertsonalak edo eskola-historia.

4.2.1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Ikasleek hezkuntza-laguntza edo -arreta jakin batzuk behar dituzte denboraldi jakin batean edo eskolatze osoan. Atal honetan hainbat premia mota aurki daitezke:

4.2.1.1. Entzumen-desgaitasuna

Ez da talde homogeneoa, entzumen-galera mailaren edo intentsitatearen arabera sailkatzen baita, eragindako lekuaren eta hura agertzen den unearen arabera. Oro har, entzumen-desgaitasuna duten pertsonak komunikatzeko bi modu desberdin erabiltzen dituzte:

- Ahozko komunikazioa, inplante bat izateagatik edo estrategia bimodalak garatzeagatik edo audifono bat erabiltzeagatik.
- Zeinatutako komunikazioa, batez ere zeinu-mintzaira erabiliz.

Kolektibo horrentzat garrantzitsua da kontuan hartzea honako laguntza-jarraibideak, metodologia- eta ebaluazio-estrategiak:

- Ikusizko arreta eta begizko kontaktua ikasleekin.

²⁰ Lomloe. 70. art.

- Aurrez aurre komunikatu, ahoa estali gabe.
- Desgaitasun hori duten ikasleak lehen lerroan eseri eskola magistraletan.
- Batzuetan, bizkarra emeki ukitu, bere arreta erakartzeko.
- Leku zaratatsuak saihestu.
- Talde-lanetan, ikasle guztiek aldi berean hitz egitea saihestu.
- Eskoletan ikusizko baliabideak erabili.
- Behar diren material guztiak idatziz eman, ebaluazio irizpideak barne.
- Ikus-entzunezko materialak garaiz entregatu behar dira.
- Baliteke ahozko azalpenetan denbora gehiago behar izatea.
- Ebaluazioan, probak bere ulermen-aukeretara egokitu.
- Kalifikatzean, edukien asimilazioa hartu behar da kontuan batez ere.
- Azterketak edo probak egiteko behar diren euskarri edo produktu teknikoak baimendu.
- Errealitate mistoa erabili bizitza errealeko egoerak simulatzeko, eta, zehazki, heziketa-zikloarekin lotutako lan-inguruneak, komunikazioa eta inklusioa hobetzeko hainbat aukera eskainiz.
- Behar izanez gero, probak egiteko denbora gehiago eman.

4.2.1.2. Ikusmen-desgaitasuna

Pertsona itsuek dituzten hezkuntza-premia bereziak heterogeneoak dira eta hainbat aldagairen mende daude:

- Ikusmenaren narriaduraren larritasuna (erabateko itsutasuna eta ikusmen-urritasuna).
- Ikus-hondarraren funtzionaltasun-maila.
- Urritasun konkurrenteak egotea (gorreria, atzerapen intelektuala, autismoa, garuneko paralisia, etab.).
- Agertzeko unea (sortzetikoa edo hartua).
- Ikusmen-galeraren izaera: bat-batekoa edo mailakatua.
- Ikusmen-nahasmenduaren etiologia eta pronostikoa.

Ezaugarriak:

Hezkuntzaren arloan, pertsona itsutzat hartzen da Braillea irakurtzeko eta idazteko erabiltzen duena, ohikoa baino motelagoa izanik. Ikusmen baxuaren kasuan, ikusmen estimuluak jasotzen jarraitzen dute, baina horiek pobreagoak dira, bai kalitateari dagokionez, bai kantitateari dagokionez, eta horrek errealitatearen interpretazio distortsionatua eragin dezake. Ikusmenik eza erabatekoa denean, kanpoko mundua hautemateko eta ezagutzeko modua ukimenaren eta kontserbatutako gainerako zentzumenen bidez egiten da.

Zailtasunak izan ditzakete kontzeptuak ulertzeko, eskuratzeko eta garatzeko.

Entzumena da nagusi hezkuntza-prozesuan, eta, beraz, ingurune lasai samarra behar da, zarata-maila kontrolatzeko.

Aparatu optikoek (betaurrekoak, lupak, etab.) ez dute ikusmena lehengoratzen, ikusmen-hondarra optimizatzeko baliagarriak dira.

Begiratzeko orduan, jarrera «arraroak» hartzen dituzte, eta ez dira zuzendu behar: paperera gehiegi hurbiltzea, burua okertzea, begiak erdibitzea, etab.

«Begiratu» eta «ikusi» hitzak lagunarteko hizkuntzaren parte dira, eta, beraz, naturaltasun osoz erabiltzea komeni da.

Laguntza-jarraibideak, metodologia- eta ebaluazio-estrategiak:

- Ingurune fisikoa egokitu, ahal diren oztopo guztiak ezabatuz, bere ohiko ingurune fisikoa ezagutzen duela ziurtatuz eta erreferentzia puntu argiak eman. Horretarako, inguruko espazioa zehatz-mehatz deskribatu behar zaio. Era berean, ia irakasgai guztiak ikasgela berean eman daitezen saiatu behar da, itsutasuna duten ikasleak ingurune ezagun batean egon daitezen.
- Argiztapena doitu, argiztatutako eremuak eta eremu ilunak txandakatzea saihestuz, segurtasunik eza sortzen baitute joan-etorrietan. Garrantzitsua da bereziki seinalatzea ikusmen gutxiko ikasleentzat arriskutsuak diren elementu arkitektonikoak: eskailerak, desnibelak, kristalezko ateak, etab.
- Ikasgelaren ingurunea antolatu espazio zabalak sortzeko: korridore aski zabalak uztea, oztoporik gabe lurrean zein hormetan, eta ondo argiztatuta, etab.
- Ikasleekin lotura bat ezarri arlo pertsonaletik, eta ez defizitetik, haien autonomia sustatuz, behar ez badute laguntzea saihestuz. Elkar agurtzen edo elkarreragiten den bakoitzean identifikatu.
- Curriculumaren eskakizunak ikasle bakoitzaren erritmora egokitu, egin beharreko lanen berri behar besteko aurrerapenaz eman eta denbora gehiago eskainiz.
- Eskolak emateko garaian, azalpenek oso zehatzak eta deskribatzaileak izan behar dute. Idazten dena hitzez adierazi behar da.
- Ikasleen parte-hartzea eta inklusioa sustatu.
- Idatzizko azterketak Braille sistemara egokitu, denbora nahikoarekin, edo dokumentu irisgarriak direla ziurtatu.
- Eskoletan eta probetan laguntzak eta baliabide teknikoak erabiltzeko aukera eman.
- Errealitate birtualeko eta areagotuko elementuak konbinatu, informazio espaziala, baliabide multisentsorialak, benetako bizitzako egoera desafiatzaileak eta simulazioa eman, heziketa zikloarekin lotutako bizitza errealeko eta lan ingurune ariketa interaktiboekin.

4.2.1.3. Mugitzeko desgaitasuna

Aparatu motorraren alterazio bat da, hiru sistemaren funtzionamendu eskasak eragindakoa: nerbio-sistema zentrala, muskularra eta hezurretakoa edo hiruren arteko erlazio bat, gorputzaren atal baten edo batzuen mugikortasun funtzionala zailtzen edo eragozten duena.

Mugitzeko ezintasunen sailkapena askotarikoa da:

- Entzefalikoa: Garun-paralisia. Garezurreko traumatismo entzefalikoa. Tumoreak. Ataxia.

- Bizkarrezurra: Arantza bifida. Muineko lesio degeneratiboak. Muineko traumatismoa. Bizkarrezurreko atrofia.
- Muskularra: Miopatiak (Duchenneren distrofia muskularra, Becker, etab.).
- Osteoartikularra: Sortzetiko malformazioak. Malformazio distrofikoak. Haurren erreumatismoak.

Ezaugarriak:

- Mugitzeko eta lekualdatzeko arazoak, bai eta jarrera- eta komunikazio-kontrollekoak ere. Bereziki laguntza teknikoak behar dituzten ikasleak dira.
- Ikasle horiek, halaber, hainbat arlori eragiten dieten nahasmenduak izan ditzakete: komunikazioa eta hizkuntza, arlo sentorialak, gaitasun emozionalak, intelektualak eta sozialak, edo beste batzuk.
- Aldizkako azterketa medikoek edo tratamendu mediko eta fisioterapeutikoetara joateak eragin diezaizkete ikasle horien eskolara joateari.

Laguntza-jarraibideak, metodologia- eta ebaluazio-estrategiak:

- Sarritan profesional baten laguntza beharko du, zentrotik lekualdatzea errazteko.
- Hitz egiteko arazoak izaten dituzte, eta, horregatik, beharrezkoa da komunikazioa erraztea eta horretarako behar duen denbora ematea.
- Gurpil-aulkian dagoen pertsona batekin elkarreragiteko, haren parean jarri beharko da.
